

Eztanda elkarteak

Irratiz kontrolatutako kotxe zaletuen elkarteak 30 kide baino gehiago ditu eta aurten zirkuitua estreinatuko du Mendaron.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Eztanda 1990. urtean sortu zen, beste bi talde elkartu eta gero. Benetako izena Avar-Eztanda da, baina Ermuan Eztanda izenarekin gara ezagunak.

- Zenbat kide zarete?

Momentu honetan 30 taldekide baino gehiago gara, 34 edo 35. Inoiz ez dugu hainbeste bazkide izan, baina jendea

gure lana ezagutzen hasi da, probatu du eta apurka-apurka animatzen doa. Irratiz kontrolatutako kotxeetan aritzeko autoa eta gogoa besterik ez da behar.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Munduko txapelketarako baliagarria den proba bat antolatzea da gure helburu nagusia. Gaur egun Euskadiko txapelketarako probak antolatzen ditugu eta Espainia eta Europarako ere antolatu izan ditugu. Lehen errazagoa zen, baina orain askoz ere maila handiagoa dago eta zailagoa da proba bat antolatzea.

- Non duzue zirkuitua?

1995ean lur-eremu bat utzi ziguten Areition eta bertan izan dugu gure zir-

kuitua orain arte. Irailean, berriz, Mendaroko zirkuitua prestatzen bukatuko dugu eta bertan ibiltzen hasiko gara. Hilero Euskadiko 1/8 eta 1/6 kotxeetarako proba bana antolatzen dugu gutxi gora behera.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Probak antolatzeaz gain, erakustaldiak egiten ditugu. Aurtengo Santixauetako erakustaldia 13.a izango da. Altzolan, Mendaron, Durangon eta Matienan ere egin izan ditugu.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Gure webgunean kontaktatzeko modua dago: www.avareztanda.com.



Eztandako kideak, Errioxa eta Nafarroako zaletuekin batera, Areitioko zirkuitu ohian, euren kotxeen ostean.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaiaeta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

TELEFLO

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

O eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830